

Gobernabilitatea

EUSEBIO OSA



BOLADA honetan hitz pottolo honekin gosaldutxo beharra (in)fortunatu zaigu. PNVren tratu guztiak gobernabilitatearen beharrak eraginak omen. Eeren ardura ere horixe da. Lehenak gobernutik hitzegiten du; bigarrenak, gobernutoren batean partetxoren bat izan nahitik (eta HBrekiko alergiatik). Inuxente integrala ez denak badaki nolako zaborteak dauden eskaparate horren ostean. Baina zabor kontuak albora utziko ditugu. Gauza da, batzuei, agian askori, gobernabilitatearen kulturak ez digula batere graziaz egiten eta hainbeste gurasokeriak botagurea edo sortzen digula. Gure Herri hau gutxiago gobernatuz, eta batipat, gutxiagok gobernatuz ere konformatuko ginateke. Ez dakit laster neure buruaren autogobernu esparru txikitxoren bat gorde ahal izateko nora izkutatu beharko dudana. Zama haunditxo somatzen dut neure gainean: gobernuak eta autogobernuak orogobernatutik naukate. Hurbilekoetara mugatuz, Eusko Gobernutik gobernatzeaz ez dute aski, Diputazioetatik eta Udaletxeetatik ere gobernatu behar gaituzte. Askotxo da. Eta askotxo dira gobernatzaile. Eta aspaldidaniko gobernadoreak ere hortxe dauzkagula ez ahaztu. Hori ere gobernatzeko egongo dira, ezta? Lehengo gobernadore eta oraingo gobernatzaile alde eta alderdiguztitarak, agintekide, oheki. Kosta behar zaigu amasa hartzea! Hain maite dute herritarra, hain babestu nahi gaituzte, belduk batek jo nau, Herri honek laster eskolaurre baten itxura guztiak hartu behar dituen beldurak. Karameloak banatzen eta haur bihurriak (EGUNKARIA...) zigortzen hasiak dira aspal-dia.

• DEIA

Hipokresia handia

Esloveniak, hala ere, orain Jugoslaviaren barruan, independientea izan nahi du, baina ez diote uzten. Esaten dute gaur egun mugak jartzea anakronikoa dela. Eta horrela da. Baina baita nazio bati zer egin behar duen kanpotik agintzea ere.

Atzerri ministroek esan berri diote ez dutela bere independentzia onartuko. Bere argudioa da ez dutela Europa erdialdea desestabilizatu nahi. Eta esaten dute Esloveniak ezin duela independentia izan bi milioi biztanlerekin. Dirudienaz, Luxemburgo izan daiteke independentea hirurehun milarekin. Eta Luxemburg-ek egiten du Europako Elkarteko buru.


LEON CORTES / 1991-VI-25

• Diario 16

PSOEren arinkeria jasangaitza

Gauzak horrela, badirudi Felipe Gonzalezen alderdiaren eta Gobernuaren arteko enfrontamendua gogortzen ari dela. Atzo egunkari honek agertu historiak, alegia, batzorde exekutiboko kide batzuk Felipe Gonzalez ohararazi diotela ezezagun batzuk bera eskandalu ekonomiko batean nahaspilatu nahi dutela, seinale guztiak ditu abisu pozintzua izateko, eta lehen probi-

HEMEROTEKA



MÀXIMO / EL PAIS / 91-VI-25

dentzia bezala, argitara ematearen bertutea izan du, eta Francisco Párramoren izena, PSOEko lider garrantzitsuenaren koinatua, berriro ere komunikabideetan agertzearena. Simaurrari aplikatutako benti-ladorea, oraingo honetan barnekoek kontsumitzeko bertsioan. *Catarsis* pa to.

JOSE LUIS GUTIERREZ / 1991-VI-25

• EL CORREO ESPAÑOL

Okerrago gaude

Azken egun hauetan asko hitze-gin eta idatzi da, Ajuria Eneako Paktuaren jarraipenaz eta egungo bere baliagarritasunaz, Garaikoe-

txea eta EAko beste lider batzuen hariari jarraiki, haserre hauteskunde osteko paktuekin, uste dutelako azpiko nazkagarria dela. Arrazoi asko egon badaitezke ere, egia da batek ez duela ondo ulertzen Euskadi Normalizatzeko eta Bakebidetatzeko Akordioa sinatu zutenek zergatik ez diren biltzen.

Badirudi inor ez dela ausartzen hori ozenki esatera, baina ukaezina da, hain zuzen ere, garai hauek oso delikatuak izateagatik, urtearen dela lehendakariak bilerarako dei egitea euskal alderdi politikoetako ordezkariei nagusiei, paktua sinatu zutenei, alegia, bat ez gainontzeko guztiak. Bestela, aitundu eta amondu egingo gara, edo gerta dakiguke, nahasketa eta deskontetuen au-

rean, ameslari sutsu batek, jende guztia atzetik eramatea Amelingo flautistak egin zuen bezala, honako hau oihukatuz: «Viva lo peor!».

RAMON MUR / 1991-VI-25

• Diario de Navarra

Jugoslavia bereiztea

Washingtonen eta EEEn pre-sioak oso demokratikoak ez izan arren, Eslovenia eta Kroaziako gobernuak ukatu egin dira beren herrien borondateari iruzur egitera, duela urtebe egindako parlamentu hauteskundeetan eta joan den udaberriko erreferendumean adierazia. (...)

Gogoratuko den bezala, Kroazia eta Esloveniako gobernuak saiatu ziren bereizketa hiri Jugoslaviako beste errepublikekin negoziatzeko.

Mazedonia eta Bosnia—Hercegovinaren parte hartu zuten negoziaketa horietan, baina Serbiak boikota egin zien. Beraz, biharko hasiko da bi errepublika horiek banantzeko prozesua alde bakar baten bidez.

Lehenko Jugoslavia federaletako lege bakarrak, baliagarriak bihurtu aurrera Kroazia eta Eslovenian, dagokien legebiltzarrek onartu beharko dituzte.

Beste hitz batzutan esanda, bi errepublika horien botere gorenaz da jadanik Belgradon egongo, Zagreben eta Ljubljanan baizik.

LUKA BRAJNOVIC / 1991-VI-25

Konfidantzaren zatiketa

ANTTON AZKARGORTA



MILITANTZIA politikaren muinean dagoen kontzeptua dugu konfidantza. Konfidantza, hala ere, ez da fedea. Fedea, militantzia erli-giosoari dagokion kontzeptua izanik, ez da zatitzen, itsua da, ez du praktikaren frogaren beharrik (nahiz eta miriak fedea indartzeko erabilia izan sarritan), bere funtsa jainkoak ezaguturazitako egian bait dago. Konfidantza berriz, politikaren funtsean izanik, banatu egiten da: disziplinaren beharra batetik eta errebeldiaren ezinbestekotasuna bestetik.

Wang Hong Wen, Txinako iraultza kulturalaren buruetakoa izandakoa, zera esan zuen erakundeez: «Bide egokirik goazenean, egoera osoa kolokan dagoenean, egiazko militantzia gogo egoistak alde batera utzi eta korrontearen aurka joaten ausartu behar da, partidurik baztertua izatearen beldurrik gabe...» Zeren, azken finean, asanblada ez da mugimendua, eta erakunde politiko eta helburuak ez bait dira gauza bera. Egoera latzetan ez gaitu inongo ierarkiak (sindikatu, partidu edo asanbladak) adorearen frogatik libratuko. Eta horiek babestu nahi bagaituzte, euren burua ezintasunean babestuz, hobe da norbera erakunde bilakatzea. Konfidantzaren zatiketan, helburuari zor diogu fidelitasuna edozein aparatari baino lehen. Laburtuz, burrukan segitzeko eskatu behar da disziplina, eta amore ematea politika gisa planteatzen denean ordea, errebeldiaren ordua heldua zaigu.

ZUZENDARIARI

Hori gaixotasuna den susmoa dut

Domeka ekainak 9ko Egin egunkarian irakurri dut artikulu batean nola indar armatuek eta poli-ziak hemengo arazoa gorroto eta heriotz ulerbi-detan aditzen duten. Interesanteak ziren ere Artzapezpikuaren adierazpenak, ezen ezin bait da nahi dena kendu haren moduak erabiliz kentzerakoan, ezen berriro kentutakoa ipintzen baita. Eta hori artzapezpikuak azioen estatuari begira, baina badaiteke aplikatu ere estatuaren aurka dihardutenen metodoei.

Baina noan nireira. Horrela ulertzen badute ez da kasualitatea, ezen ezin bait dute ulertu antropologo politiko batek uler-tuko lukeen moduan, edo materialista batek bezala,

eta guttiago ere marxista baten moduan. Euren logikak zerikusi gehiago du elizak erakusten duen filosofiarekin, pasioneak direla gertakizunen indar ezkutua, eta tragedien iturria eta ulerbidea. Maite dute munduko zarataik apartatzen denaren bizi lasaia, baina gerra da, gerra guztiaren aurrean, Nietzscheren berbak hauek, gertatu behar dena. Eta estatua defendatzen dute, estatu klasezalea, eta guztiz koherenteak dira ezen Aristotelek bereizketa sozialak eta esklabuen izatea honela argitzen bait zuen:

—Garailea beti nabaritzen da zerbait onagatik.

Oso berezkoa daukate ba pentsabide hori, nahiz eta halako fijazioa gerra gauzetan, eztabaidak beti ezagutuko dira baina dena ez da eztabaida amaigabea eta infernua, nik uste, baduen zerbait usain pa-

tologikorik, beharbada esklerosiguneak dira garunaren baztarretan, ez dakit. Gaixotasun hori, begira bestela nola zabaldu diren estatu formazioak munduan barrena, oso erraz kutsatzen da, eta hedatzen.

Dena dela, oso eztabaia interesantea iruditu zait hori dena.

RAMON GARMENDIA
SORALUZE

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefona, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

PERSONAIA



Mikel Lasa

Lasatar Mikel jokalaria gelditu zaigu pikutan madrildar horiek daramakite jardun ondoren disputan gure arrobi bulartsuaren behar aldian dituk han hire inbidiz zitxauden eta ea asetzen ditukan.

NIKOLAS ZENDOIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIAN ETXEHARRETA
INAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11